20 28

MIRAMAR JAUREGIA


1887. urtean, María Cristina erreginaordea iritsi zen itsasoan bainatzeko asmoz eta horrek hiriko etorkizun turistikoa baldintzatu zuen, orduan ikusi zutelako “Errege Landetxe” bat eraiki behar zela.

Aipatutako landetxea eraikitzeko, Moriana Kondearen jabetzako finka bat aukeratu zuten, garai horretan “El Antiguo” izeneko Donostiako Monasterioak okupatutako inguruan kokatuta. Erreginak aipatutako Kondeari finka hori 1888.urtean erosi zion, eta hari Antiguo parrokiak okupatutako Estatuaren jabetzako lur-zati bat erantsi zion. Ondorioz, parrokia horrek bere kokapena aldatu zuten, eta finka berriaren azalera beste jabetza txikiekin osatu zuen.

Jauregiaren proiektua (1889) Selden Wornum arkitektoaren ingelesaren lana izan zen eta José Goicoa, berriz, obraren zuzendaritzaz arduratu zen. Jauregiaren estiloa ingelesa da erabat, apaingarri neogotikoak erantsiz. Eraikin nagusia zalditegiekin, lanbideen etxearekin eta kotxe-tokiekin osatzen zen.

1893.urtetik, errege familiak udaro erabili zuen. Parke handi bat zeukan, Ducass-ek trazatuta – gaur egun publikora zabalik dagoen parkea baino askoz handiagoa- Conchako badiarantz begira dauden bista zoragarriekin. Lorategipean tunel faltsu bat eraiki behar izan zen (1889-1890), errepidetik pasa ahal izateko. 1920an Printzearen Pabilioia izeneko eraikina eraiki zen.

Erregina 1929an hil ondoren, Alfonso XIII.ak finak oinordean hartu zuen, eta Gobernu errepublikanoak desjabetu zuen 1931n. 1933an Udalak finka jaso zuen, Errepublikako Presidenteak udarako egoitza



Miramar Errege Jauregiaren barrutia.

Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 581193 m Y: 4796110 m .



1. Gaur egungo Miramar Errege Jauregia.
2. Jatorrizko Jauregitik banatutako sektoreak.
3. Pío Baroja. Ortoargazkia 2015.

Iturria: Eusko Jaurlaritza-G. Vasco; geoEuskadi.



Miramar jauregia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa.

bezala erabiltzeko eta erantsitako erakinak hezkuntza eta kulturarako erabiltzeko baldintzarekin.

1941ean, Errepublika desagertu ondoren, ondasunak Alfonso Borbon jaunari itzuli zitzaizkion, hura hil eta hilabete batzuk ondoren, beraz, horien oinordeak Jaime, María Cristina eta, batez ere, Juan jaun-andreak izan ziren, eta baita usufruktua ere Victoria Eugenia andrearen alde.

1958. urtean Miramar Jauregiaren jabekidetasuna desegin zen. Jauregi ondoko inguruek osatutako fina nagusia Juan jaunari adjudikatu zitzaion, 1.000 m2ko partzela txiki bat kenduz. Hura 1963an saldu egin zen. Donostiako Udalak finka nagusia (34.136 m2) erosi zuen 1972an.

Finkaren gainontzekoa bi lur-zatitan banatu zen: 10.700 m2 eta 37.000 m2-koa, hurrenez hurren Jaime, Beatriz eta María Cristina Borbón jaun-andreen alde. Horiek 1963an saldu ziren, etxebizitza gisa erabiltzeko eraikin kopuru mugatu bat eraikitzeko helburuarekin.



Lur-zati handienaren gainean Pío Baroja bidea eta bertako zati txiki bat okupatu zuen eraikin bat eraiki zen, eta gainontzekoa, berriz, (17.000 metro karratu inguru) Miramar Jauregiaren lorategi historikoaren garaietan zegoen bezala geratu zen.

Hiritar gutxik bere jatorriaren historia ezagutzen ez duten lur-zati honek jauregiarekin batera zegoen garaietako antzeko itxura kontserbatzen du: lorategiaren trazadura, bereziki bidea (malda txiki batean); itxieraren inguruko hormaren zati handia; begetazioa jatorrizko egoeran, etab.

Lorategiaren sektore nagusia parke publiko bilakatu zuten, eta jauregia, berriz, Eusko Ikaskuntza edo Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak bezalako kultur erakundeen egoitza da. “Musikene” Euskal Herriko Musikako Goi Mailako Kontserbatorioaren aldi baterako egoitza ere izan zen (2001-2016).



Miramar Errege Jauregia itsasotik. Gaur egun parke publiko bat da.



Mikeleteak Miramar Jauregiaren sarrera nagusian, XX. mende hasieran.